



**Arartekoaren 2024R-1542-24 Ebazpena, 2024ko azaroaren 13koa.** Honen bidez, Bermeoko Udalari gomendatzen zaio ebatzi dezala eraikin baten aurri-egoeraren espedientea.

### Aurrekariak

1. Herritar batek kexa aurkeztu zuen Arartekoan Bermeoko Udalak ez ziolako erantzun eraikin baten aurri-deklarazioaren eskaera bati.

Zehazki, kexagileak adierazi zuen 2022ko maiatzaren 20an hasierako eskaera bat aurkeztu zuela Bermeoko Udalean Bermeoko (...) kaleko (...) zenbakietan dagoen eraikina aurri-egoeran dagoela deklaratzeko.

Ondoren, adierazi zuenez, 2022ko ekainaren 28an, udal-teknikariak erkidego interesdunari eskatu zion zuzen zitzala aurkeztutako aurri-txostenean jasotzeko zenbait alderdi. 2022ko azaroaren 2an, kexagileak eskatu zitzaion dokumentazioa aurkeztu zuen.

Erreklamazioan azaldu zuenez, telefono bidez hainbat elkarrizketa izan ostean eta zegokion dokumentazio guztia aurkeztu zuen arren, erantzunik jaso gabe jarraitzen zuen; hori dela-eta, erakunde honetara jo zuen.

lido horretan, beharrezkotzat jotzen da adieraztea Arartekoak gai berdinari buruzko beste erreklamazio bat izapidetu zuela (...). Udalak lankidetzeta-eskaerari emandako erantzuna kontuan hartuta, 2024ko apirilaren 10eko Ebazpenean Arartekoak bere esku-hartzea amaitutzat jotzea erabaki zuen, egiaztatu baitzuen Bermeoko Udalak eraikinaren aurri-egoeraren eskaerari erantzuna emateko egin zituen jarduketan berri eman ziola.

Alde horretatik, Arartekoak Bermeoko Udalari gogorarazten dio interesdunek aurkeztutako eskaeren edukia berriaz sustatu eta ebatzi behar duela, eta hartutako erabakia arrazoizko epe batean jakinarazi behar diola.

Kexagileak Arartekora jo zuen berriro toki-administrazio horren administrazio-isiltasuna dela-eta.

2. 2024ko maiatzaren 9an, Arartekoak informazioa eskatu zion Bermeoko Udalari, aurri-deklarazioaren eskaerari dagokionez kexagileari emandako erantzunari buruz.
3. 2024ko irailaren 25ean, Bermeoko Udaleko Hirigintza, Obrak eta Ingurumen Saileko Administrazio Orokorreko teknikariak txosten bat bidali zion Arartekoari, zeinean jasotzen baita udal-arkitektoak espedientea aztertu eta balioztatu behar duela oraindik.





Informazio hori ikusita eta informazio horren edukia aztertu ondoren, Arartekoak honako gogoeta hauek helaraztea erabaki du:

### Gogoetak

1. Oro har, herritarrek egindako eskaerei dagokienez, gogorarazi behar da administrazio publikoek bermatu behar dutela herritarrekiko harremanetan jarraitutako izapideak behar bezala egiten direla, dagokion administrazio-prozeduraren bidez.

Administrazio-prozedurarako eskubide hori interesdun diren herritar guztiek daukate, bai eta, hirigintzaren esparruan ezarrita dagoenaren arabera, gaia dela eta akzio publikoa egikaritzeko eskubidea daukaten guztiek ere.

Horrenbestez, herritarrek administrazio onerako eskubidea daukatenez gero, administrazio publikoek aurkezten zaizkien idazkien hartu-agiria eman behar dute, idazki horiek prozedura egokian ofizioz sustatu behar dituzte eta aurkezten zaizkien kontuei eta errekurtsoei zentzuzko epealdiaren barruan eta modu egoki eta arrazoituan erantzun behar diete.

Kexan azaldutakoaren antzeko kasuetan ere aplikatu behar dira administrazio onaren printzipio horiek. Hizpide dugun kasuan, pertsona batek udalak esku hartzeko eskatu du, eraikin baten aurri-egoera deklaratzeko.

Halaber, herritarren arazoak arrazoizko epe batean konpondu behar dira, horretarako eskubidea baitute. Euskal Sektore Publikoari buruzko maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen 64. artikulua argia da eta bertan adierazten da administrazio onerako eskubideak honako hau barne hartzen duela:

*" a)Herritarren auziak inpartzialtasunez, bidezkotasunez eta arrazoizko epe baten barruan tratatuak izateko eskubidea, eta, atzerapen saihetsezinen bat gertatuz gero, horren arrazoiak jakitekoa".*

2. Ildo horretan, Bermeoko Udalari eraikin baten aurri-deklarazioa eskatzeko aurkeztutako idazkiak aurkezteak berekin ekarri behar du dagokion administrazio-izapidea egitea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitakoaren arabera.

Espainiako Konstituzioak berak –103.1 eta 105. artikuluetan– bermatu egiten du administrazio-izapide batzuk daudela eta herritarrei benetako erantzuna eman behar zaiela.

Horri dagokionez, salatutako kontuak ebaluatu ondoren, organo eskudunak aintzat hartu behar du legezko aurri-egoerari edo berehalako aurri-egoera fisikoari buruzko espedientea hastea, edo, bestela, eskatzailearen uzia ez onartzea edo ezesteko ebazpena ematea.



Edozelan ere, administrazio publikoek beren beregi erantzun behar diete, arazoizko epe batean, herritarrek egiten dituzten eskaera guztiei. 39/2015 Legearen 21. eta 88. artikuluetan zehaztuta dago berariazko ebazpena ematearen betebeharra. Ebazpen hori arazoitua izan behar da eta bat etorri behar da eskariaren muinarekin eta gehienez ere hiru hilabeteko epean eman behar da.

Bestalde, gogoratu behar da baliabide materialik eta pertsonalik ez izateak ez dituela herri-administrazioak salbuesten administrazio onaren betebeharrak horiek betetzetik. Horretarako, udalek funtzio publiko horiek garatzeko beharrezko bitartekoak dituztela bermatu behar dute, beren kabuz edo beste administrazio batzuekin lankidetzan aritzeko formulak bilatuz.

Horri dagokionez, esan beharra dago, baliabide faltagatik hirigintza-espeditenteen izapidetzean balizko atzerapen orokor bat gertatuko balitz, administrazio horrek aztertu egin beharko lukeela, bere betebeharrak betetzen direla bermatzeko baliabide teknikoak eta pertsonak lortu ahal izateko.

3. Aurri-deklarazioaren prozedurari dagokionez, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 201. artikulua eta hurrengo xedapenetan ezartzen da (aurrerantzean, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legea).

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legean xedatutakoa ikusita, udal-administrazioa izango da legezko aurri-egoeraren espeditentea hasteko edo berehalako aurri fisikoa deklaratzeko organo eskuduna.

Testuinguru horretan, gogorazi behar da Bermeoko alde zaharra kultura-ondasun deklaratu zela, monumentu-multzo kategoriarekin, ekainaren 5eko 132/1996 Dekretuaren bitartez. Hizpide dugun kasuan, kexagilearen etxebizitza 4. zerrendan dago, babes-maila morfologikoan, eta honela finkatzen da:

*"... arkitektura-, historia- edo arte-baliorik ez izan arren, Hirigune Historikoaren bilbearen bereizgarri diren etxadiak konfiguratzeko dituen eskemari erantzuten diotelako baloratzen diren lursailetan kokaturik dauden higiezinak".*

Monumentu-multzoaren kategoria Euskal Autonomia Erkidegoko kultura-ondare higiezina babesteko sailkapenaren barruan dago. Sailkapen hori Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legean araututa dago (aurrerantzean, Kultura Ondareari buruzko Legea).

Horretarako, Kultura Ondarearen Legeak hiru babes-maila bereizten ditu, ondasunaren kultura-balioen arabera: babes berezia, ertaina eta oinarritzkoa duten kultura-ondasunak. Era berean, kultura-ondare higiezinaren babes-kategoria desberdinak ezartzen ditu, besteak beste, monumentu-multzoa; gainera, aurri-deklaraziorako prozedurak jasotzen ditu, eraikina babes ertain edo bereziko araubide espezifikoan badago.



4. Kasu honetan, Bermeoko Udalak Arartekoari jakinarazi dizkio Bermeoko udalerrian dagoen eraikin bat aurre-egoeran deklaratzeko eskaerari erantzuteko egindako jarduketak.

Hala ere, kexagileak 2022ko azaroaren 2an azken dokumentazioa aurkeztu zuenetik aski gaintitu da erantzuna emateko legezko hiru hilabeteko epea. Hori dela eta, Arartekoak uste du udalaren azken jarduketatik igarotako denbora gehiegizkoa dela.

Espedientean dauden datuak ikusita, Arartekoak Bermeoko Udalari gogorarazten dio interesdunek aurkezten dituzten aurre-eskaeren edukia berariaz ebatzi behar duela, eta hartutako erabakia jakinarazi behar diela, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean eta Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legean xedatutakoaren arabera.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, erakunde hau sortu eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

#### GOMENDIOA

Bermeoko Udalak dagozkion udal-eskumenak osorik gauzatu ditzala, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean eta Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legean xedatutako prozeduraren bidez, eta eraikin baten aurre-egoera deklaratzeko espedientea ebatzi dezala.

Bermeoko Udalak, halaber, behar bezala erantzun dezala kexagileak aurkeztutako eskaera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutako bermeen eta epeen barruan.

